

8. etapa: Legutio-Etxaguen (uztailak 4)

IbilVital ibilbideak

Legutio-Etxaguen

2026eko uztailaren 4a

08:30-14:00

5€



Vital Fundazioak mendian zehar gidatutako irteeren programa berri bat jarri du martxan udaberri honetarako, publiko guztiarentzat diseinatuta. Lehenengo edizio honetan GR25 izango da (batez ere Arabako Lautadan).

Informazioa

1333an hiribildu izendatua, Legutioko herrixkak gaur egun Kristoren Arkua gordetzen du, Erdi Aroko hiribildua defendatzen zuen harresi zaharraren aztarna bakarra.

Mendebalderantz oinez hasi bezain laster, Urrunagako urtegia zeharkatuko dugu, Natura

2000 Sarearen barruan dagoena, eta, handik gutxira, Gorbeia Parke Naturalaren hegoaldeko isurialdean barneratuko gara. N-240 errepidea zeharkatu eta Gorbeia Parke Naturala osatzen duten basoetan sartuko gara. Haritzak, pagoak, altzifreak eta pinuak izango ditugu bidelagun gure ibilbidean, Etxaguen (Zigoitia) herri politera iritsi arte.

- **Distantzia:** 12 km
- **Desnibela:** +325 m -215 m
- **Zailtasuna:** ertaina

Izen-ematea

Izen-emateak 5€tan egin daitezke ondorengo formularioaren bidez:

[8. etapa: Legutio - Etxaguen \(uztailak 4\)](#)